
GURASOEN ESKOLETARAKO GAIEN PROPOSAMEN OROKORRA

HAUR etapan dauden seme-alabak dituzten gurasoei zuzendua

- 3-6 urte bitarteko neska/mutilen **psikologia ebolutiboa**. Zein diren adinotako gizarte, ezagutza, gorputz... mailako ezaugarriak.
- Ama edo aita naizen aldetik, zein **hezkuntza eredu** eskaintzen diedan nire seme-alabei.
- Toleranteegia ala zorrotzegia naiz? **Arauek eta mugek** familia bizikidetzan duten eginkizuna nola neurtu.
- Noiz eta modu egokian nola **saritu eta zigortu** nire seme-alabak.
- Nola menderatu gazteenen **kasketak**.
- **Osasunerako hezkuntza**: elikadura, atsedena, higiena: nola sortu gure seme-alabengan baldintza hoberenetan hazten lagunduko dieten ohitura osasuntsuak.
- Gure seme-alabengan **autoestima** positiboa areagotzeko giltzarriak.
- Nire semeak-alabak **beldurra** dio... Zer esan eta zer egin neska/mutilen beldurren aurrean.
- Nire semeak-alabak telebistan ikusten edo lagunek duten guztia eskatzen du. Komunikabideek haurrengan duten eragina. Zer egin genezake gurasook **zaparrada kontsumistaren** aurrean?
- **Aisialdirako** hezkuntza. Nola antolatzen dugu aisialdia familian? Behar bezala partekatzen al dugu? Zertan izan dezake eraginik nire semeak/alabak aisialdiaz disfrutatzerakoan?
- **Balioak irakasten**. Zer balio ari gara igortzen? Galtzen ari al dira betiko balioak? Komunikabideek balioen igorpenean duten eragina.
- **Hezkuntza afektibo-sexuala**. Zein adinetan hasi behar dugu sexuaz hizketan? Nola hitz egin nire seme-alabekin sexuaz, eta zein alderdiri buruz?
- **Agresibitatea**. Nire haurra agresiboegia al da?. Nola bideratu agresibitatea helburu positiboetarantz. Nola jokatu "gainditzen" gaituzten agresibitate egoeren aurrean.
- **Hiperaktibitatea**. Nire semea ez da geldik egoten. Hiperaktiboa al da edo, besterik gabe, egongaitza? Antzeman al diezaioket hiperaktibitateari etxean bertan? Baldin hiperaktiboa bada, egin al nezake nik ezer?
- **Familiaren** garrantzia seme-alaben hezkuntzan. Familia motak eta eginkizunak.